



Andoaingo Udala



Andoaingo Udalak 16-30 urte bitarteko 7 gazte kontratatuko ditu Administrazioarekin lehen esperientzia izan dezaten

Andoaingo Udalak 7 pertsona kontratatuko ditu datozen egunetan; langabeturik dauden gazteak izango dira eta 12 hilabeteko kontratua izango dute. Administrazio publikoetan Lehen Lanbide esperientzia izateko programaren baitan kontratatuko dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskutik.

Eskaintzen diren lanpostuak honako hauek dira:

- Klima aldaketaren eta energia trantsizioaren teknikaria
- Komunikazio-marketing kudeatzailea
- Toponimiako teknikari espezialista
- Artxibo-dokumentazio teknikaria
- Igeltsero-iturgin lagunzailea
- Argiketari laguntzailea
- Artxiboko administraria

Bertan parte hartu ahal izateko, honako baldintzak bete behar dira:

- Langabezian eta Lanbiden alta emanda egotea enplegu eskatzaile gisa
- 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.
- Praktiketako lan-kontratu bat hitzartzeko betekizunak betetzea.

Kontratazioen baldintza zehatzak Lanbidek iragarritako lan eskaintzetan azaltzen dira.

Eskaerak: Interesatuak beren izen-ematea LANBIDE -EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUaren webgunearen bidez egingo dute (www.lanbide.eus)

Epea: 2023.12.10 arte

Kontratazio hasiera: 2023.12.31a baino lehen

Zalantzarik izanez gero Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria Lansailera zuzendu daiteke (Tfnoa. 943.304221)